

Klima-aldaketa saihesteko eta
garapen iraunkorraren aldeko estrategia

2017-2024 Tokiko Ekintza Plana



LEGAZPI KLIMA 2030



LEGAZPIKO
UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obitu
Hidraulikoetako Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



udalsarea21

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

LEGAZPI KLIMA 2030

Klima-aldaketa saihesteko eta garapen iraunkorraren aldeko estrategia 2017-2024 Tokiko Ekintza Plana

Laguntza teknikoa:

Haizea Ikerketa eta Factor CO₂

Diseinua eta maketazioa:

Horregatik komunikazioa

Uztailak 2017



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Oitro
Hidraulikotzako Departamentua



www.legazpi.eus

Euskal Herria plaza 1 - 20230 | 943 73 70 30 | legazpi@legazpi.eus

AURKIBIDE NAGUSIA



LEGAZPI KLIMA 2030 ESTRATEGIA

AURKIBIDEA

LEGAZPI KLIMA 2030 ESTRATEGIA



1. Sarrera	06
2. Helburuak	07
3. Nazioarteko konpromisoak: Aalborg + 10, Euskal Adierazpena eta Compact of Mayors	08
4. LEGAZPI KLIMA 2030 estrategiaren gauzatze prozesua	
4.1 - Eragile inplikatuak	09
4.2 - Metodologia	09
4.3 - Parte-hartzea	10
5. Ikuspegia	12
6. Ildo estrategikoak eta xedeak	13

1. Sarrera



LEGAZPI KLIMA 2030 Legazpiko udalerrriak **jasangarritasunarekiko eta aldaketa klimatikoaren aurrean duen estrategia eta konpromisoa da.**

Ekintzak gauzatzuz udalerriko **ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko erronkei erantzutea** da bere helburua, baita klima aldaketa arintzea eta egokitzea.

LEGAZPI KLIMA 2030 strategiaren abiapuntua udalerriko ingurumen eta gizarte egoerari buruzko diagnostikoa idaztea izan da, baita Klima aldaketaren aurrean **ahultasunaren diagnostikoa**.

Udalaren jardueran eta kudeaketan eragina duten lurralde, arlo tematikoak eta baita klima aldaketaren arintzearekin eta egokitzapenarekin zerikusia duten eremuak ere, identifikatu, bildu eta aztertzearen ondorioz, Legazpik dituen erronkak identifikatu ahal izan dira. Honela, iraunkortasunaren aldetik, **hurrengo urteetako lehentasunezko esku hartzeko helburuak** ezarri dira.

LEGAZPI KLIMA 2030 estrategia ikuspegiak, xedeez eta ildo estrategikoek osatzen dute, eta hauek, programa eta ekintzetan zehazten dira, 2017-2024 Tokiko Ekintza Plana eratuaz.

2. Helburuak



LEGAZPI KLIMA 2030 ESTRATEGIAREN XEDEAK ONDORENGOAK DIRA:

- Udalak Tokiko Jasangarritasunaren alde lan egiten jarraitzeko bere gain hartu duen konpromisoari erantzun.
- Legazpik aurre egin behar dituen klima aldaketaren inpaktuei erantzuna eman.
- Biztanleria erabakitze-prozesuetan barneratu eta kultura parte-hartzailea handitu.
- Hiritarren eta alor publikoaren arteko lankidetzaren areagotzea klima aldaketaren arintze eta egokitze arloetan.
- Planifikaziorako tresna izan, etorkizuneko iraunkortasun nahiz klima aldaketaren arloko ekintzak modu ordenatuan programatzeko.
- Diseinua egin ostean, kudeaketarako eta ebaluaketarako tresna izan, urteroko aurrekontuei lotuz.
- Udalez gaindiko finantzaketa iturriak jasotzea erraztu.
- Klima aldaketari aurre egiteko dauden baliabideen esleipena hobetu.
- Estrategia amankomun baten kultura sortzea klima aldaketaren arintze eta egokitze arloetan.

3. Nazioarteko konpromisoak



AALBORG + 10

2004. urteaz geroztik **Aalborg+ 10** konpromisoak helburuak eta lorpenaren neurketa barneratzeko garaian oinarrizko erreferentzia-esparrua da.

EUSKAL ADIERAZPENA

2016. urtean Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarrean **Euskal Adierazpena** sortzen da. Aalborgeko Gutuna (1994) eta Aalborgeko Konpromisoen (2004) ondorengo aurrerapauso izan nahi du. Euskal Adierazpenaren leloa honakoa da: *“Bide Berriak Europako Hiri eta Herrientzat. Hiri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortuz, bizitzeko egokia den Europa inklusibo batentzat”*.

COMPACT OF MAYORS

Gainera, Estrategia honek Legazpik Nazio Batuetako **Compact of Mayors** ekimena sinatu zuenean hartutako konpromisoa betetzera laguntzen du. Ekimen honek hurrengo **hiru urtetako epean hurrengo gaiei buruz informazioa ematea eskatzen du:**

- Urte bateko epean, Legazpiko berotegi gas isurpenen inbentarioa egitea “Protocolo Global para la dimensión comunitaria de Inventarios de Emisiones de Gases de Invernadero (GPC)” delakoarekin bateragarria izateko moduan.
- Urte bateko epean, Legazpik aurre egin behar dituen klima arriskuen definizioa.
- Bi urtetako epean, berotegi gasen isurpenen murrizketaren objektiboa.
- Bi urtetako epean, Legazpiko klimaren aurreko ahultasunaren diagnostikoa.
- Hiru urtetako epean, Legazpiko planak klima aldaketaren arintze eta egokitze arloetan.

4. LEGAZPI KLIMA 2030

estrategiaren gauzatze prozesua



4.1 ERAGILE INPLIKATUAK

LEGAZPI KLIMA 2030 strategiaren gauzatzean honako eragile eta organoek hartu dute parte jarduera desberdinetan:

- > **LAN TEKNIKOAK:**
Aholkulari Taldeak, proiektuko Zuzendaritza politiko eta Teknikoarekin elkarlanean eta teknikarien partaidetzarekin garatua.
- > **BARNE KOORDINAZIO ETA PARTAIDETZA LANAK:**
Bakarkako elkarrizketak eta arduradun politiko eta teknikoen talde lanaren bitartez.
- > **HERRITARREN PARTE-HARTZE JARDUERAK:**
Web galdetegiaren bitartez eta herritarren parte-hartze Foroaren bitartez.

4.2 METODOLOGIA

LAN PROGRAMA 5 FASETAN BANATU DA:

- > **1. Proiektuaren zehaztapena eta abian jartzea,** prozesua aurkezteko eta koordinazio eta parte-hartze mekanismoak Tokiko Agenda 21 berrikuspen prozesuaren beharretara egokitzeko Udal barruan eta kanpoan (herritarrak eta giza eta ekonomia eragileak) bilerak antolatzean datza.
- > **2. Formulazio estrategikoa,** udalerriko ikuspegia zehaztuz, lortu nahi diren xedeak ezarri eta helburu estrategikoak, operatiboak eta ekintzak zehaztuz.
- > **3. Ekintzen ezaugarritzea,** 2017-2024 Ekintza Plana kudeaketarako benetako lanabesa izan dadin ekintzen definizio zehatz bat egitean datza.
- > **4. Planaren jarraipena eta kudeaketa egiteko tresnen diseinua**
- > **5. Txostenen idazketa**

4. LEGAZPI KLIMA 2030

estrategiaren gauzatze prozesua



4.3 PARTE-HARTZEA

Tokiko Agenda 21, kontzeptuz eta filosofiaz, barne (Udaleko teknikari eta politikariz osatua) eta kanpo mailako (herriko sektore ezberdinez osatua) **parte-hartze prozesu baten bitartez lagundua egon behar da.**

Informazio eta motibaziorako euskarri moduan balioko duen **komunikazio estrategia** baten laguntza nahitaezkoa da herritarren kalitatezko parte-hartzea bermatzeko. Horretarako, unerik esanguratsuenetan **Udaleko ohiko komunikazio kanalak** erabili dira.

Prozesu guztian zehar, lehen aipaturiko fase ezberdinetan **barne eta kanpo parte-hartzea integratu eta artikulatu** da eta ekarpenak ondorengo dokumentuan txertatu dira.



Hurrengo orriko kuadroan parte-hartze jardueri buruzko informazio zabalagoa aurki dezakezu.

PARTE-HARTZE JARDUERAK



Politikariak



Teknikariak



Herritarrak

DATA	JARDUERA	IZAERA	HELBURUA / GARAPENA
2016-4-19	Barne bilera politikariek	Barne partaidetza: politikariak	Proiektuaren aurkezpena eta konpromiso maila adostea
2016-04-22	Barne bilera politikariek	Barne partaidetza: teknikariak	Proiektuaren aurkezpena, aurreko aldien inguruan hausnarketa eta motibatzea erronka berriaren aurrean
2016-04-21	Herritarren 1. Foroa: Zein da Legazpiren gaurko egoera?	Kanpo partaidetza	Proiektuaren aurkezpena herritarrei eta diagnostikorako ekarpenak jasotzea
Maiatza	Galdetegia: "Lagun gaitzazu Legazpiren argazkia osatzen"	Kanpo partaidetza	Galdetegia herritarren pertzepzioa jasotzeko Legazpiren egoeraren inguruan arlo desberdinetan
2016-05-20	Elkarrizketak: ahultasun azterketa teknikariek	Barne partaidetza: teknikariak	Udaleko sektore bakoitzeko ahultasuna zein den ezagutu teknikarien eskutik
2016-06-16	Herritarren 2. Foroa: Legazpi 2030. urtean	Kanpo partaidetza	Legazpi 2030. urteko herritarren ikuspegia jaso
2016-07-5	Barne bilera: Diagnostikoa eta lehentasunezko eremuak baliozkotzea	Barne partaidetza: teknikariak	Egungo egoeraren laburpen agiria baliozkotzea eta lehentasunez esku hartzeko eremuak identifikatzea
2016-07-5	Barne bilera: Diagnostikoa eta lehentasunezko eremuak baliozkotzea	Barne partaidetza: politikariak	Egungo egoeraren laburpen agiria baliozkotzea eta lehentasunez esku hartzeko eremuak identifikatzea
2016-07-12	Barne bilera: Ikuspegia	Barne partaidetza: politikariak	Udalerrirako nahi-lerroak landu, adostasunetik agertoki ideal bat eraikitzeko elementuak landuz "Legazpi 2030 urtean" ikuspegia sortzeko
2016-09-12	Barne bilera: Formulazio estrategikoa (xedeak eta ildo estrategikoak)	Barne partaidetza: politikariak	Illo estrategiko eta programen formulazioa, xedeei lehenengo begirada eta gai sortuberrien inguruan hausnarketa
2016-09-14	Barne bilera: ekintzak identifikatzea	Barne partaidetza: teknikariak	Ekintza plana osatuko duten ekintzen lehen identifikazioa eta gai sortuberrien inguruan hausnarketa
2016-09-27	Barne bilera: ekintzak formulatzea	Barne partaidetza: teknikariak	Ekintzak zehaztea eta berauen ezaugarritzea hastea
2016-09-29	Herritarren 3. Foroa: Ekintza Plana	Kanpo partaidetza	Ekintzak bildu eta lehentasunak ezartzea ildo estrategiko mailan
2016-10-24	Barne bilera: Estartegia eta Ekintza Planaren zirriborroa	Barne partaidetza: politikariak	Proposatutako ekintza eta xedeen inguruan hausnarketa
Urria	e_ekarpenak	Kanpo partaidetza	Herritarrek ekintzak proposatzea
2017-03-31	Barne bilera: LEGAZPI KLIMA 2030 estrategia eta 2017-2024 Ekintza Plana eztabaida	Barne partaidetza: politikariak	Ikuspegi, xede, ildo estrategiko, programa eta ekintzen inguruan eztabaidatzea
2017ko ekaina	Barne bilera: LEGAZPI KLIMA 2030 estrategia eta 2017-2024 Ekintza Plana baliozkotzea	Barne partaidetza: politikariak	Azken dokumentuaren baliozkotzea

5. Ikuspegia

Legazpi 2030ean **pertsonentzako pentsatutako** udalerrria izango da, herritarrentzat **bizitza kalitate** hobea lortuko duena ondoko arloen garapenaren ondorioz:

- bidezkoa, anitza eta kohesionatua den gizartea
- **bizitasuna duen ekonomia** eta **kontsumo orekatua**
- prozesu **parte hartzaile** eta demokratikoak hori guztia naturaren mugen barnean harmonian biziz.



6. Ildo estrategikoak eta xedeak

1. ILDO ESTRATEGIKOA:



Hiri eremu abegikor eta lurralde anitz nahiz egokitzeko gaitasuna duena

1.

Egokitze irizpideak udalerriko plangintzan urbanistikoan sartzea.

2. ILDO ESTRATEGIKOA:



Energia aldetik arduratsua nahiz eraginkorra, eta mugikortasunean atsegina, den udalerria

1.

Legazpiko berotegi efektuko gasen isurpenak 2006. urtearekiko %40a murriztu (industria sektorea alde batera utziz)

2.

Udal mailan, energia berriztagarrien ekoizpena % 30ra arte areagotzea Udaleko eraikuntza eta instalakuntzen energia-kontsumo osoarekiko. Eraginkortasun energetikoa % 27a areagotzea.

3.

Udalerrri mailan, energia berriztagarrien ekoizpena % 20ra arte areagotzea energia-kontsumo osoarekiko. Eraginkortasun energetikoaren ekarpena % 27a areagotzea.

3. ILDO ESTRATEGIKOA:



Baliabideen erabileran arduratsua eta eraginkorra den udalerria eta ingurugiro osasungarria eskaintzen duena

1.

Aldaketa klimatikoari buruzko kanpaña bat urtero garatzea.

2.

Udalerrian sortzen diren hiri hondakinen gaikako bilketa, gutxienez %80ean mantendu.

3.

65 urte baino gehiago duen biztanleriaren udalerriko gizarte zerbitzuen atentzio tasa % 40 igotzea.

4. ILDO ESTRATEGIKOA:



Ekonomia egungo egoera aldakorra eta gorabidean dauden erronkak aberastasuna, kalitatezko lana eta enplegu berdea sortzeko aprobetxatzen dituen ekonomia

1.

Establezimendu txikizkari kopurua mantendu, aurtengo kopurua oinarritzat hartuz.

2.

Lehenengo sektoreko ekoizleen ekarpena areagotu, gaur egungo ekarpena oinarritzat hartuz.

3.

Establezimendu txikizkarien aniztasuna areagotu.

6. Ildo estrategikoak eta xedeak

5. ILDO ESTRATEGIKOA:



Gizarte aldetik aktiboa den udalerrria, berdintasuna nahiz pertsonen, kulturen eta hizkuntzen arteko elkar bizitza babesten

1.
Euskararen erabilpena %40a izatea lortzea.

2.
Auzoetan, euskararen erabilpena %15a izatea lortzea.

3.
Biztanleriaren %10a bizikidetasun eta gizarteratze programetan parte hartzea lortzea.

6. ILDO ESTRATEGIKOA:



Teknologia berrietan oinarritutako gobernantza berri bateranzko bidean ardura kide diren pertsona parte hartzaile eta sentikortuz osatutako herria

1.
Urtero, herritarren parte hartze prozesuak sustatzen duten Udalerrri Zerbitzuen batez besteko kopurua, 4 izatea lortzea.

2.
Herritarren parte-hartze ekintzen urteroko batez besteko kopurua, 10 baino gehiago izatea lortzea.

7. ILDO ESTRATEGIKOA:



Gobernantza garden, fidagarri eta eraginkorrean oinarritutako udal kudeaketa berritzaile eta zeharrekoa

1.
Ingurumen, gizarte edota genero irizpideak pleguen %50ean barneratzea lortzea.

2.
Udalak kudeaketa zuzena duen eraikuntzen %90ak ingurumen edota energia kudeaketa tresna izatea lortzea.

3.
Herritarren tramitazioen %20 a, modu elektronikoen bitartez egitea lortzea.

2017-2024 TOKIKO EKINTZA PLANA

AURKIBIDEA

2017-2024 TOKIKO EKINTZA PLANA



2017 - 2024 Tokiko Ekintza Plana	17
Egitura	17
1. Ildo estrategikoa: hiri eremu abegikor eta lurralde anitz nahiz egokitzeko gaitasuna duena	18
2. Ildo estrategikoa: energia aldetik arduratsua nahiz eraginkorra, eta mugikortasunean atsegina, den udalerrria	19
3. Ildo estrategikoa: baliabideen erabileran arduratsua eta eraginkorra den udalerrria eta ingurugiro osasungarria eskaintzen duena	20
4. Ildo estrategikoa: ekonomia egungo egoera aldakorra eta gorabidean dauden erronkak aberastasuna, kalitatezko lana eta enplegu berdea sortzeko aprobetxatzen dituen ekonomia	21
5. Ildo estrategikoa: gizarte aldetik aktiboa den udalerrria, berdintasuna nahiz pertsonen, kulturen eta hizkuntzen arteko elkar bizitza babesten	22
6. Ildo estrategikoa: teknologia berrietan oinarritutako gobernantza berri bateranzko bidean ardura kide diren pertsona parte hartzaile eta sentikortuez osatutako herria ...	23
7. Ildo estrategikoa: gobernantza garden, fidagarri eta eraginkorrean oinarritutako udal kudeaketa berritzaile eta zeharrekoa	24

2017 - 2024 Tokiko Ekintza Plana



Diagnostikotik eta egindako hausnarketa estrategikotik abiatuta, 2017-2024 Ekintza Plana osatu da.

2017-2024 Ekintza Plana LEGAZPI KLIMA 2030 estrategiaren lehen zikloaren parte da, eta bere **iraunaldia 8 urtekoa da**. Honela, epe labur, ertain eta luzera begira ekintzen garapen eta exekuzioko epealdi errealetara egokitzen den plangintzarako tresna izango da.

Egitura

**PLANA HIRU
MAILATAN
EGITURATZEN
DA:**

> **7 ILDO
ESTRATEGIKO**

> **22 PROGRAMA**

> **72 EKINTZA**

Ekintza bakoitza jarraian jasotzen diren deskribatzaileen arabera gutxienez ezaugarritu da:

EKINTZAREN DESKRIBAPENA:

Ekintzaren definizioa eta oinarritzko ezaugarriak, ondoren gauzatzeko eta balioztatzeko gutxieneko elementuak eskaintzen dituztelarik.

ARDURADUNA:

Ekintza gauzatzen edo ezartzen parte hartuko duen udaleko sail edo erakunde nagusia.

EPEA:

Ekintza gauzatzeko edo ezartzeko gehieneko epea: motza (1-2 urte), ertaina (3-4 urte) edo luzea (5-8 urte).

MAIZTASUNA:

Ekintza gauzatzeko proposatutako maiztasuna.

LEHENTASUNA:

Ekintzak duen lehentasuna (handia, ertaina, txikia) adierazten du, ingurumenean, gizartean edo ekonomian duen eraginaren arabera.

KOSTUA:

Ekintza gauzatzeak edo ezartzeak sortuko duen kostua.

BATERAGARRITASUNA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO PLANAREKIN:

Ekintza Klima Aldaketara egokitzeko Planean sartzen den adierazten du.

1. ILDO ESTRATEGIKOA. Hiri eremu abegikor eta lurralde anitz nahiz egokitzeko gaitasuna duena



P.1.1

HIRI PLANEAMENDUAN ALDAKETA KLIMATIKO, EGOKITZAPEN ETA JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK SARTU

- 1.1.1. Hiri Plan Orokorra berrikusi jasangarritasun eta aldaketa klimatikoari egokitzeko irizpideak kontuan hartuz.
- 1.1.2. Arrisku klimatikoan dauden bizitegi gunekak identifikatzeko eta babesteko plana garatu.
- 1.1.3. Udalerriko baliabide industrialak berrindartzeko mekanismo interinstituzionalen sorkuntza sustatu.
- 1.1.4. Udalerriko azpiegiturak arrisku klimatikoetara egokitzeko plana garatu.
- 1.1.5. Hirigintza eta Etxebizitza Planetan arkitektura bioklimatikoko irizpideak sartu.
- 1.1.6. Udaleko teilatuetan teilatu berdeak ezartzea aztertu.
- 1.1.7. Auzoen urbanizazio berri integrala garatzeko planak burutu.

P.1.2

BIODIBERTSITATEAREN MANTENUA BULTZATU INTERES EKOLOGIKOA DUTEN ELEMENTUAK ETA BIODIBERTSITATEA MANTENTZEA ETA BALIOAN JARTZEA

- 1.2.1. Lorezaintza Plan berritzaile baten garapena, biodibertsitatea eta ekosistemak herrian barneratuz.
- 1.2.2. Udaletxeko teknikoekin eta politikariek biodibertsitatearen inguruko formakuntza ekintzak burutu.
- 1.2.3. Herritarren ongizatea sustatzeko Legazpiko potentzial naturalistikoa aprobetxatu.

P.1.3

BASO KUDEAKETA JASANGARRI BAT BURUTU

- 1.3.1. Ardanbieta eremuaren hedapena eta basoaren kudeaketa iraunkorra.
- 1.3.2. Arraseta mendiaren baso kudeaketa iraunkorra eta paisaiaren balorizazioa burutu.

2. ILDO ESTRATEGIKOA. Energia aldetik arduratsua nahiz eraginkorra, eta mugikortasunean atsegina, den udalerria



P.2.1 ENERGIA BERRIZTAGARRI PROIEKTUAK BULTZATU UDALERRIAN

- 2.1.1. Udalerriko tokiko energia iturriak erabiltzeko aukeraren analisia burutu.
- 2.1.2. Energia berriztagarrien alorrean komunitate proiektuak bultzatzeko analisia garatu.
- 2.1.3. Eskualde mailan kudeaketa sistema bat ezarri eta energia kudeatzailearen lanpostua sortu.

P.2.2 ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA BULTZATU ETA KONTSUMO ENERGETIKOA MURRIZTU

- 2.2.1. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzeko dauden neurri fiskalak zabaldu.
- 2.2.2. Kale argiztapenaren diseinuaren berrikuspen eta optimizazio plana garatu.
- 2.2.3. (SMART) Energi kontsumitzaile handiak diren eraikuntzen monitarizazioa burutu.
- 2.2.4. Udal eraikuntzetan eraginkortasun energetikoa sustatu.
- 2.2.5. Herritarrei zuzenduta dauden eraginkortasun energetikoari buruzko sentsibilizazio ekintzak garatu.
- 2.2.6. Udal isurketak kalkulatu eta murriztu.
- 2.2.7. Udalerrian energia txirotasunaren analisia eta jarduketa protokolo bat garatu.

P.2.3 MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATU

- 2.3.1. Mugikortasun Jasangarriaren Planean deskribatutako ekintzal ezarri.

3. ILDO ESTRATEGIKOA. Baliabideen erabileran arduratsua eta eraginkorra den udalerrria eta ingurugiro osasungarria eskaintzen duena



P.3.1 AIRE KALITATEAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA BURUTU

- 3.1.1. Udalerriko airearen kalitate ona nabarmendu.
- 3.1.2. Industri jarduerengatik hunkituta dauden auzo eremuetan, airearen kalitatearen analisia bat egitea eskatzea Eusko Jaurlaritzari edo konpetentzia duen organismoari.

P.3.2 HONDAKIN SORKUNTZAREN MURRIZPENA, BERRERABILTZEA ETA BIRZIKLAPENA SUSTATU

- 3.2.1. Hondakin sorkuntza murriztu.
- 3.2.2. Auzokonpostajea bultzatu.
- 3.2.3. Hondakinen gaikako bilketa formula berriak sustatu.
- 3.2.4. Udalerrian, objektuak berrerabiltzeko aukera desberdinak aztertu eta sustatu.

P.3.3 UR BALIABIDEAREN ERABILPENA ETA KUDEAKETA OPTIMIZATU

- 3.3.1. Euri-uren berrerabilpenerako analisia egin.
- 3.3.2. Uholdeak saihesteko Drainatze Iraunkorreko Hiri-Sistema ezartzearen eta egitekotan non ezartzearen azterketa garatu.
- 3.3.3. Uholde-urak kudeatzeko euri lorategiak sortzea aztertu.

P.3.4 HERRITARREN ALDAKETARA KLIMATIKOAREKIKO EGOKITZAPENA INDARTU

- 3.4.1. Biztanleriaren sektore ahulენტzako larrialdi sistema garatu.
- 3.4.2. Udal zerbitzu sozialen eskaintza handitu (eguneko egoitzak, etxez etxeko laguntza, baztertzea, eguneko arreta eta meazti (tutoretzapeko etxebizitzak).
- 3.4.3. Legazpiko biztanleria gazteagotzeko ekintzen analisia eta garapena.
- 3.4.4. Muturreko gertaera klimatikoen kasuan jarraitu behar den protokoloa Emergentzi planean zehaztu.

4. ILDO ESTRATEGIKOA. Ekonomia egungo egoera aldakorra eta gorabidean dauden erronkak aberastasuna, kalitatezko lana eta enplegu berdea sortzeko aprobetxatzen dituen ekonomia



P.4.1 LEHEN SEKTOREA SUSTATU

- 4.1.1. Legazpiko azoketan lehen sektorea eta bertako produktuak balorean jarri.
- 4.1.2. Soilik herrikoak diren ekoizleen produktuen feria bat antolatu.
- 4.1.3. Ibilbideak eta irteerak antolatu bertako baserri eta ekoizleak ezagutarazteko.
- 4.1.4. Mendiara lursaileko proiektua martxan jarri.
- 4.1.5. Aldaketa klimatikoaren eraginez sortuko diren ingurumeneko inpaktuak aztertzeke ikerketa bat garatu.

P.4.2 INDUSTRIAREN SUSTAPENA ETA INSTITUZIOEN ARTEKO LANKIDETZA BULTZATU

- 4.2.1. Herriko enpresen beharrak ezagutu eta behar horiek asetzen laguntzeko baliabideak sortu.
- 4.2.2. Udalaren eta herriko enpresen artean harreman ildo iraunkorrak sortu.

P.4.3 MERKATARITZA, ZERBITZUAK ETA TURISMOA BULTZATU

- 4.3.1. Herriko merkatarien eta Udalaren arteko sinergiak bultzatuko dituen mekanismoa sustatu.
- 4.3.2. Legazpiarrek herrian erosteko ohitura indartzeko ekintzak burutu.
- 4.3.3. Udalak zuzenean edo Udalaren diru laguntzaz antolatzen diren ekimenetan edo egiten diren erosketetan herriko komertzio eta enpresetako zerbitzuak nahiz produktuak erabil daitezela bultzatu.
- 4.3.4. Merkataritza Indartzeko Plan Berezia egin.
- 4.3.5. Legazpi Aizkorriko Parke Naturalaren sarrera/irteera ate izatea bultzatu.

5. ILDO ESTRATEGIKOA. Gizarte aldetik aktiboa den udalerrria, berdintasuna nahiz pertsonen, kulturen eta hizkuntzen arteko elkar bizitza babesten



P.5.1 EUSKARAREN ERABILPENA SUSTATU ETA BERMATU

- 5.1.1. Kirol aktibitate zein elkarten artean euskeraren erabilera bultzatu.
- 5.1.2. Euskeraren erabilera bultzatu, batez ere gazte eta helduen artean.
- 5.1.3. Udal barneko txostenak hasiera-hasieratik euskaraz sortzeko gaitasuna eskura dezaten, trebakuntza eta tresnak eskaini udal langileei.

P.5.2 KULTUR ARLOKO BEHARRAK IDENTIFIKATU ETA HAUEN ARABERA ESKAINTZA EGUNERATU

- 5.2.1. Kultur arloko behar berriak identifikatzeko azterketa egin herritar eta kultur eragileekin, eta kultur ekipamenduak (Kultur Etxea eta Latxartegi Aretoa), eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak, behar horietara egoki

P.5.3 KOHESIOA, INTEGRAZIOA ETA BIZIKIDETZA BULTZATU UDALERRIKO TALDE DESBERDINEN ARTEAN

- 5.3.1. Haurrentzako zerbitzuak nolakoa izan behar duen jakiteko azterketa bat egin eta zerbitzua martxan jarri.
- 5.3.2. Baratzak sustatu kohesio, integrazio eta belaunaldi artekotasunerako erreminta bezala.
- 5.3.3. Etorkinen integratziorako diagnostiko bat egin eta plana egin/neurriak martxan jarri.
- 5.3.4. Harrera protokoloak sortu herrira bizitzera etortzen direnentzat.

P.5.4 GENERO BERDINTASUNA BERMATZEN DUEN GIZARTEA LORTU

- 5.4.1. Antolaketa Arduratsu Soziala bultzatzea.
- 5.4.2. Hezitzailei zein familiei genero indarkeria adin goiztietatik saihesteko erremintak eman.

6. ILDO ESTRATEGIKOA. Teknologia berrietan oinarritutako gobernantza berri bateranzko bidean ardura kide diren pertsona parte hartzaile eta sentikortuez osatutako herria



P.6.1 ELKARTEEN DINAMISMOA BULTZATU

- 6.1.1. Herriko elkarte bakoitzaren egoera zehatza eta beharrak aztertu.
- 6.1.2. Elkarte lanaren lana herritarrei era elkartu batean ezagutzera eman, elkarte lanaren balioan jarritz.

P.6.2 SENTIKORTZEA, FORMAKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA BULTZATU UDALERRIAN, ALDAKETA KLIMATIKOAREN ETA EGOKITZAPENAREN ARLOAN ERE

- 6.2.1. Funtsezkoak diren profesionalei aldaketa klimatikoari buruz informazioa eman, Udaletxearen betebeharrak azetu ahal izateko.
- 6.2.2. Herritarrentzat zuzendutako sentsibilizazio eta hezkuntza ekintzak garatu aldaketa klimatikoaren gaian.
- 6.2.3. Langileen, elkarte lanaren eta herritarren Partaidetza Plangintza diseinatu.
- 6.2.4. Parte-hartzeko ordenantza bat egin.
- 6.2.5. Garapen iraunkorrari buruzko hezkuntza eta kontzientzia programak garatu.

7. ILDO ESTRATEGIKOA. Gobernantza garden, fidagarri eta eraginkorrean oinarritutako udal kudeaketa berritzaile eta zeharrekoa



P.7.1 ADMINISTRAZIO JASANGARRIAGOA LORTU

- 7.1.1. Kontratazio eta erosketen baldintza agirietan egin behar den irizpideen integrazioarako prozedura bat sortu eta barne zabalkuntza eman.
- 7.1.2. Teknikariak zein politikariak formatu eta sentikortu erosketara eta kontratazioan kontutan izan beharreko irizpideen inguruan.
- 7.1.3. Ingurumen edo/eta energia kudeaketa tresnak ezarri publikoak diren egoitzetan.

P.7.2 BARNE KOORDINAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA SISTEMA OPTIMIZATU

- 7.2.1. Udal langile eta politiko etorri berrientzako harrera protokoloa sortu.
- 7.2.2. Etorkizuneko erronketara modu malgu batez egokitzeko gaitasunak dituen langile corpusa eratu.

P.7.3 TEKNOLOGIA BERRIETAN OINARRITUTAKO SISTEMAK EZARRI ETA HAUEN ERABILPENA SUSTATU

- 7.3.1. Herritarrekin harreman telematikoa orokortu, eskaintzen diren aukerak zabalduz eta herritarren artean aukera hauek erabiltzea sustatuz.
- 7.3.2. Tramitazio elektronikoa egiteko egoitza elektronikoa garatu.

Ekintzetan sakondu nahi baduzu

JARRAIPEN PLANA

AURKIBIDEA

JARRAIPEN PLANA



1. Jarraipen planaren xedea	28
2. Jarraipen planeko operazioak	29
3. Nork hartzen du parte planaren kudeaketan?	32
4. Jarraipenerako ereduaren proposamena	33

1. Jarraipen planaren xedea




Jasangarritasunerako LEGAZPI KLIMA 2030 Ekintza Planaren ezarpenerako monitorizazio lanabesen zehaztapena egitea du helburu Jarraipen Planak, proposamenen betetze maila eta hauen eraginkortasuna ebaluatuz, baita adierazleen kalkulua ere.

Horren bitartez, Ekintza Plana inguruabar eta egoera berrietara egokitzen joan daiteke, herriaren testuinguru sozioekonomiko eta ingurumenekoaren bilakaerara egokituz.

2. Jarraipen planeko operazioak

LEGAZPI KLIMA 2030 Ekintza Plana kudeaketarako erabateko tresna eraginkor moduan erabili ahal izateko, Udalsarea 21etik (Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea) aldizkako hainbat aplikazio prozesuren integrazioa sustatzen da.



Iturria: "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en ekintza planen urteroko Programaziorako eta Ebaluaziorako Gida Metodologikoa". Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 60. zk. 2006ko Urria. Ihobe.

Horrela, LEGAZPI KLIMA 2030 Ekintza Planaren urteroko kudeaketa ezartzeak, honakoa baloratzea eta komunikatzea ahalbidetuko du:

- Jasangarritasun helburuen (jasangarritasun adierazleak) lorpena.
- LEGAZPI KLIMA 2030 Planean burututako jarduerak (Planaren exekuzioaren ebaluaketa).
- Hurrengo urtean garatuko diren jarduerak zeintzuk izango diren erabakitzea (Planaren urteroko programazioa).

JARRAIPEN PLANEKO OPERAZIOAK

OPERAZIOA ¹	DESKRIBAPENA	HELBURUA
TOKIKO JASANGARRITASUNAREN ADIERAZLEEN KALKULUA (TJA)	<p>Euskadiko tokiko jasangarritasunaren adierazleen sistemaren urteroko kalkulua LEGAZPI KLIMA 2030 Planaren ebaluazio eta jarraipen programaren esparruan, MUGI 21 aplikazio informatikoa erabiliz.</p>	<p>TJA-en kalkuluak ondorengo ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalerrriaren egoera eta joerak ezagutu eta ebaluatzea. • Urtean zehar burutu diren ekintzen emaitzak ebaluatzea. • Biztanleriari udalerriko garapen jasangarriaren egoera, joera eta garapen mailaren berri ematea modu argi eta errazean.
BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN (BEG) INBENTARIOAREN KALKULUA	<p>Berotegi-efektuko gasen Inbentarioren kalkulua.</p>	<p>BEG-en isurketen Inbentarioaren kalkuluak ondorengo ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Toki-administrazioko jardueraren ondorioz erregai eta elektrizitatearen kontsumoari eta garraioari dagokien isurketen banaketa ezagutzea. • Udalerriri zuzenki loturiko jardueren isurketak ezagutzea.
AHULTASUN ANALISIAREN EGUNERATZEA	<p>LEGAZPI KLIMA 2030 Planean ezarri diren ahultasun indikatzaileen egoera eguneratzea eta udalaren ahultasun berria kalkulatzeko.</p>	<p>Ahultasun adierazleen eguneratzeak ondorengo ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalerriri aldaketa klimatikoarekiko duen ahultasun maila ezagutzea. • LEGAZPI KLIMA 2030 Planean ezarri diren egokitze ekintzen emaitzak ebaluatzea. • Udalerriko sektorerik ahulenak identifikatzea.
LEGAZPI KLIMA 2030 EKINTZA PLANAREN (LKEP) BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Metodologia estandarizatuaren eta MUGI 21en aplikazio informatikoaren bitartez ekintza Planak gauzatuak mailaren urteroko balorazioa eta analisisa da. • Ekintza bakoitzaren exekuzio mailaren ebaluazio horiek euren garapen egoeraren arabera sailkatzea ahalbidetzen du. Hortik abiatuz, Planaren ezarpen globalaren maila kalkulatu da. • Zenbait aldagaien arabera (lehentasuna, gaiak, tipologia) exekuzio adierazgarriak ere ateratzen dira; udalaren analisi ebolutiboan egiten eta hori beste prozesu batzuekin konparatzen uzten du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eraginkortasun handiagoa lortzearren, erabakiak hartzeko eta Planaren udal kudeaketaren orientazioa gauzatzeko informazio baliotsua eskaintzen du. • LKEP-aren exekuzio mailaren ikuspegi orokorra eskaintzen du. • Informazioa biltzen du: programatu gabe egonik, ekintza edo helburuen garapenean laguntzen duten ekintzak sartzea ahalbidetzen du. • Hobekuntzak proposatzeko zailtasunak aurkezten dituzten atalak antzematea ahalbidetzen du. • Inplikaturik dauden agente ezberdinei -politikoak, teknikoak, herritarrak- LEGAZPI KLIMA 2030 Planaren garapena komunikatzeko eta ezagutarazteko datu zehatzak eskaintzen ditu.

¹ Ekintza guztiak urteroko periodikotasuna dute, LEGAZPI KLIMA 2030 Ekintza Planaren Berrikuspenak salbu.

JARRAIPIEN PLANEKO OPERAZIOAK

OPERAZIOA ¹	DESKRIBAPENA	HELBURUA
EMAITZAK JAKINARAZTEA	<p>Behin jasangarritasunaren adierazgarrien eta BEG-en kalkulua, ahultasun adierazleen eguneratzea eta ezarpen mailaren ebaluazio prozesua bukatu eta gero, lortutako emaitzak LEGAZPI KLIMA 2030 Planari lotutako aktore taldeari komunikatzea beharrezkoa da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Planean inplikaturako eragile teknikoei. • Gobernu taldeko kideei zein herritarrei. • Herritar zein gizarte eta ekonomi eragileei. 	<p>Barne komunikazioaren bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Barnean dauden udaletako teknikariek Ekintza Plana barneratzen dutela sustatzea, xedea izanik hauek Planaren ekintzak beren jardueran txertatzea eta barne komunikazio eta koordinazioa indartzea. <p>Kanpo komunikazioaren bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalak jasangarritasunaren alde egiten duena herritarrei aldizka komunikatzen laguntzea, egiaztatutako informazioan oinarriturik. • Herritarren parte-hartze organoak finkatzen laguntzea Planaren exekuzioaren jarraipenaren eta ondorengo programazioaren bitartez. • Herritarren parte-hartzea sustatzea jardueren urteko programazioaren prozesuan herritarrak integratuz.
TOKIKO AGENDA 21AREN KALITATEAREN NEURKETA (tak21)	<ul style="list-style-type: none"> • tak 21 Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate orokorra neurtzeko eta ezagutzeko sistema da. 5 ezaugarriren balorazioen bitartez definitzen da: ezaugarri estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak, operatiboak eta jasangarritasunekoak. • Udalsarea 21ek sustatutako Auditoretza sistema bat da, eta Sarean dauden udalerrien Tokiko Agenda 21eko prozesuen kudeaketa modeloren parte da. 	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bidezko diagnostiko baten bidez Tokiko Agenda 21en plangintza hobetzea. • Udalerrian hoberen dauden alderdiak eta hobetu daitezkeenak antzematea.
EKINTZEN PROGRAMAKETA	<p>Hurrengo urtean Ekintza Planaren ezarpenean lagunduko duten egin beharreko jarduerak definitzea; erreferentzia moduan Planari dagokion urterako planifikatutako ekintzak eta ebaluaziotik jasotako emaitzak hartuko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintza Planaren hainbat urtetako planifikazioa udal aurrekontuari eta barnean dauden udal-zerbitzuen kudeaketari lotzea. • Planaren exekuzioa jarduteko beharren eboluziora eta eskura dauden giza baliabideetara eta baliabide ekonomikoetara modu egokiagoan doitzea. • Planari lotutako proiektu eta jarduerak formulatzea hurrengo urtean zehar udalaz gaindiko finantzazioaren bilketara bideratuta daudenak. • Legazpi 2030 Planaren prozesua udal teknikarien multzo osoaren aurrean ikusgarriagoa egingo duten eta haiengandik hurbilago kokatuko duten hurbileko denbora-mugarriak eskura izatea.
EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA	<p>Aurrekoa ordeztuko duen hainbat urteko Ekintza Plan berria lantzea.</p>	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Planaren helburu zein ekintzak jasangarritasunari eta aldaketa klimatikoa egokitzeari loturiko arloen eboluzio juridiko, tekniko, ekonomiko eta sozialera egokitzea. • Gaikako esparruen arabera, Planaren jardueren ezarpen mailara doitzea. • Udalerriaren ingurumen eta gizarte eboluziora moldatzea.

¹ Ekintza guztiak urteroko periodikotasuna dute, LEGAZPI KLIMA 2030 Ekintza Planaren Berrikuspenak salbu.

3. Nork hartzen du parte planaren kudeaketan?



EKINTZA PLANAREN KUDEAKETA PROZESUAN BEHARREZKOA DA ONDORENGOEN KONPROMISOA:

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA UDAL MAILAN	LEGAZPI KLIMA 2030 Planaren kudeaketara lotutako Udaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesu osoa erraztea eta sustatzea. • Prozesuan inplikaturako eragile multzoarekiko komunikazioa, laguntza eta jarraipena. • MUGI 21en inguruko dokumentu eta informazio kudeaketa. • Programazio txostena egitea. • Udalsarea 21ekin eta kanpoko ebaluatzailearekin komunikatzea. • Eraitzen txostenaren tratamendua eta lantze prozesua.
INPLIKATURAKO ERAGILEAK	Udal, udal enpresa, zein udal eskuduntzak beren gain dauzkaten eskualdeko beste entitateetako o teknikari edo hautetsiak, Ekintza Planaren buruketan inplikaturikoak.	<ul style="list-style-type: none"> • Buruturiko Ekintza Planari loturiko jarduera guztien identifikazioa. • Integratutako eta ebaluatutako jardueren ondorengo balidazioa. • Planera lotuta egin beharreko jardueren formulazioa eta dagokion kostua.
EBALUATZAILEA	<p>Prozesua ebaluatzeko propio esleitutako pertsonal teknikoa, lan hori burutzeko gaitasun bereziak izan behar dituena.</p> <p>Rol hau Udaleko pertsonal tekniko batek bete dezake, baina hobe da Udaletik kanpoko eragile batek egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuaren koordinatzaileari metodologi laguntza ematea. • Prozesuaren hasierako aurkezpenari eta eragileei irizpideak emango dizkien prozesu bukaerari laguntza ematea. • Metodologi gidan ezarritako irizpideen arabera ekintzen exekuzio mailaren ebaluazioa. • Prozesuaren kalitatearen kontrola eta metodologi irizpideen gutxiengoa betetzearen balidazioa. Beharrezkoa izanez gero, koordinatzaileari laguntza ematea.

4. Jarraipenerako ereduaren proposamena



JARRAIAN UDALEKO KUDEAKETA ORGANOEN ETA PARTAIDETZA ORGANOEN BITARTEZ PROZESUAREN JARRAIPENA EGIN AHAL IZATEKO EREDU BAT AURKEZTEN DA.

BARNE PARTAIDETZA

Barne partaidetza gako elementua da Ekintza Plana parada berrietara eta sortuz doazen egoeretara, hots, udalerrriaren ingurumen, gizarte eta ekonomia testuinguruaren eboluziora, moldatuz joango den kudeaketa tresna eraginkorra izatera iristeko.

Ekintza Planaren ezarpen mailaren ebaluaziotik eta kalkulaturako iraunkortasun adierazleetatik eskuratutako informazioa erabiliz (bi prozesuok urterokoak dira), zera bilatzen da, eremu hauek **udalerrriaren egoera eta joerari buruzko hausnarketa komunerako toki** bihur daitezela. Era horretara, Plana urtero era egokian orientatu ahal izango da eta tokiko garapen iraunkorreko eredu baterantz aurrera jarraitzeko erabakiak hartu ahal izango dira.

Horretarako, urtero Ekintza Planaren programazioa egin beharko da, batetik, hurrengo urtean zehar burutuko diren ekintzak definituz eta, bestetik, hauek udal aurrekontuetara eta inplikaturako udal zerbitzuek burutzen dituzten zerbitzuetara lotuz. Bultzada politikoa halabeharrezkoa da Planaren exekuzioa eskura dauden baliabide ekonomiko zein teknikoetara eta giza baliabideetara doitzeko.

HORRENBESTEZ, PROZESUAREN JARRAIPENA HAINBAT MAILATAN EGITEA KOMENI DA:

MAILA	ORGANOA	IZAERA	FUNTZIOAK
TEKNIKOA	Lan talde teknikoa	Teknikoa	Información, seguimiento y participación.
POLITIKO-TEKNIKOA	Lurraldetasun Batzordea	Mistoa (udaleko arduradun politiko nahiz teknikoek osatua)	Planaren ezarpen eta garapenari bultzada Udal barruan

Egun ez dago Agenda 21eko lan talde teknikorik, eta beraz, gomendagarriena, LEGAZPI KLIMA 2030 Estrategiaren lan talde teknikoa osatzea izango litzateke.

Bi organoak LEGAZPI KLIMA 2030 Planaren garapen eta jarraipen prozesuak eskatzen duen maiztasunarekin deituko dira bilerara. Ezarritako helburuak betetzearren, komenigarria litzateke **organo bakoitzarekin gutxienez urtean bitan elkartzea.**

4. Jarraipenerako ereduaren proposamena



JARRAIAN UDALEKO KUDEAKETA ORGANOEEN ETA PARTAIDETZA ORGANOEEN BITARTEZ PROZESUAREN JARRAIPENA EGIN AHAL IZATEKO EREDU BAT AURKEZTEN DA.

KANPO PARTAIDETZA

HERRITARREN PARTE-HARTZE ETA JARRAIPENA HAINBAT METODOREN BITARTEZ BURUTU DAITEKE, PARTE-HARTZEA BULTZATZEN DUTEN FORO EDO TAILERRAK ANTOLATUZ, ESATERAKO.

Kanpo partaidetza izan daiteke:

- LEGAZPI KLIMA 2030 prozesuari berari lotua: LEGAZPI KLIMA 2030 Planaren jarraipen, ebaluaketa eta programazioa ahalbidetzen duten herritarren parte-hartzeko mekanismoak.
- Sektoriala edo gaikakoa: herritarren parte-hartzeko mekanismoak, adibidez, mugikortasun foroak, airearen kalitatea, biodibertsitatea, Udala-enpresa, parte-hartzeko estrategiak diseinatzeko prozesuetan zentratutako bilerak, etab

Egun Legazpik Agenda 21eko Foroa du. Elkargune aholku-emaille honen helburu nagusia legazpiarrek udal mailako kudeaketa iraunkorrean parte har dezatela da. Online Foroa ere existitzen da.

LEGAZPI KLIMA 2030 Estrategiaren prozesuari berari loturiko saioak gutxienez urtean behin egitea komeni da. Iraunkortasunaren nahiz aldaketa klimatikoaren inguruan gaiak proposatzeko, eztabaidatzeko, ezagutzak konpartitzeko, pertzepzioak jasotzeko, etabar, urtean zehar behar hainbat saioa egitea komeni da. Orain arteko foro presentzialaren maiztasuna (8-10 saio inguru urtero), bai herritarren eta bai udalaren beharrak asetzen dituela esan daiteke.

Parte-hartze eta jarraipen hau udal Organoak egin dituen bileren eta urteko programazioaren araberakoa izango da.

